

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Bilbao-Bizkaia Ur-Partzuergoa**

**Consortio de Aguas de Bilbao-Bizkaia**

**2012**





## AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	7
I. SARRERA .....	9
II IRITZIA .....	11
II.1 Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa .....	11
II.1.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	11
II.1.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	11
II.2 Udal Sareak, SA Sozietate Publikoa .....	12
II.2.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	12
II.2.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	12
II.3 Bilboko Urak Sozietate Publikoa, SA .....	12
II.3.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	12
II.3.2 Urteko kontuei buruzko iritzia .....	12
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK .....	14
III.1 Aurrekontua eta kontabilitatea .....	14
III.2 Langileria gastuak.....	14
III.3 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa .....	15
III.4 Udal Sareak, SA .....	17
IV. FINANTZA ANALISIA.....	19
V. URTEKO KONTUAK .....	21
V.1 Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren Urteko Kontuak.....	21
V.2 Udal Sareak, SAren Urteko Kontuak .....	24
V.3 Bilboko Urak, SAren Urteko Kontuak .....	25
ALEGAZIOAK .....	27
ABREVIATURAS .....	39
I. INTRODUCCIÓN .....	41
II. OPINIÓN.....	43
II.1 Consorcio de Aguas de Bilbao-Bizkaia .....	43
II.1.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	43
II.1.2 Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	43



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

II.2	Sociedad Pública Udal Sareak, S.A. ....	44
II.2.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	44
II.2.2	Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	44
II.3	Sociedad Pública Aguas de Bilbao, S.A.....	44
II.3.1	Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad .....	44
II.3.2	Opinión sobre las Cuentas Anuales .....	45
<b>III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN .....</b>		<b>46</b>
III.1	Presupuesto y Contabilidad.....	46
III.2	Gastos de personal .....	46
III.3	Contratación de bienes y servicios .....	47
III.4	Udal Sareak, S.A. ....	49
<b>IV. ANÁLISIS FINANCIERO .....</b>		<b>51</b>
<b>V. CUENTAS ANUALES .....</b>		<b>53</b>
V.1	Cuentas Anuales del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia .....	53
V.2	Cuentas Anuales de Udal Sareak, S.A. ....	56
V.3	Cuentas Anuales de Aguas de Bilbao, S.A.....	57
<b>ANEXOS .....</b>		<b>59</b>
<b>A Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia .....</b>		<b>59</b>
A.1	Normativa aplicable .....	59
A.2	Presupuesto y modificaciones presupuestarias .....	59
A.3	Gastos de personal .....	60
A.4	Compra de bienes corrientes y servicios .....	62
A.5	Inversiones reales, inmovilizado material e inmaterial y Programa de Inversiones .....	63
A.6	Transferencias y subvenciones concedidas .....	65
A.7	Inmovilizado financiero y variación de activos financieros.....	65
A.8	Tasas y otros ingresos .....	67
A.9	Ingresos por transferencias y subvenciones de capital .....	68
A.10	Deudores presupuestarios y provisión de insolvencias .....	69
A.11	Fondos Propios .....	70
A.12	Deudores y acreedores no presupuestarios .....	70
A.13	Cuentas financieras e ingresos patrimoniales .....	72
A.14	Conciliación resultado presupuestario-patrimonial .....	72
A.15	Análisis de contratación de bienes y servicios .....	73



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

<b>B</b>	<b>Udal Sareak, S.A.</b> .....	<b>75</b>
B.1	Encomiendas realizadas por el Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia a favor de Udal Sareak, S.A.....	75
B.2	Gastos de personal .....	77
B.3	Análisis de contratación de bienes y servicios.....	78
<b>C</b>	<b>Estados Financieros Consolidados</b> .....	<b>79</b>
	<b>ALEGACIONES</b> .....	<b>81</b>

Vitoria-Gasteiz, 2014ko maiatzaren 29a

Vitoria-Gasteiz, 29 de mayo de 2014





Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BBUP	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
BLH	Bizkaiko lurralde historikoa
CIADI	Inbertsioei buruzko Aldeak Konpontzeko Nazioarteko Zentroa, gaur egun ICSID (International Centre for Settlement of Investment Disputes)
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala
EFPL	6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
HUA	Hondakin-Uren Araztegi
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
8/2010 ELD	8/2010 Errege Lege-Dekretua, maiatzaren 20koa, defizit publikoa murrizteko aparteko neurriak hartzen dituen.
20/2011 ELD	20/2011 Errege Lege-Dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza gaietan premiazko neurriei buruzkoa.
20/2012 ELD	20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa







## I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako lanerako programan ezarritakoari jarraiki, Bilbao-Bizkaia Uren Partzuergoaren 2012ko Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du, Bizkaiko Batzar Nagusietatik jasotako fiskalizazio eskaerei erantzun emanez.

Txosten honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: BBUPren kontuak eta BBUPren partaidetza gehiengoa duten sozietate publikoen (Udal Sareak, SA eta Bilboko Urak, SA) urteko kontuak ezargarri zaizkien kontularitzako printzipioen arabera gauzatu diren aztertzen da. Hiru erakundeen kontuak kanpoko enpresa batek ikuskatu ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.
- BBUPren finantza egoeraren analisia

BBUP 1967ko martxoaren 17an sortu zuten Bilbo Handia Udalbatza Administratiboaren eta data horretan partaide ziren udalen artean. Berezko nortasun eta gaitasun juridikoa du, martxoaren 30eko 3/95 Foru Arauan –Bizkaiko Udalez gaindiko Erakundeak arautzen dituen- eta apirilaren 2ko 7/1985 Legean –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen- xedatutakoaren arabera.

BBUPren jarduera nagusia partaide diren udalerrien lurralde esparruan uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da, hiri uraren zikloaren integrazio, zerbitzuaren kalitatearen homogeneotasun eta tarifen uniformetasun printzipioetan oinarritutakoa. 2012ko abenduaren 31n partzuergora bildutako udalen kopurua 77 udalerrikoa da, Bizkaiko lurralde historikoari dagozkionak eta atal honen buruan zerrendatu ditugunak.

2000ko uztailaren 16an eratu zen Udal Sareak, SA sozietatea eta bere egitekoa lotua dago uraren azpiegiturako obra publikoen kudeaketarekin eta uraren zerbitzu publikoari dagozkion zerbitzuekin, hornidura eta saneamendua bi atalak besarkatzen dituela, bai sare nagusian, bai bigarren mailakoan, bere izenean, BBUPren –akziodun bakar dena- kontura eta haren aginduz.

2000ko uztailaren 28an Bilboko Urak, SA sozietatea eratu zen BBUPk kanpoan zuen jarduera kudeatzeko; BBUPk kapital sozialean % 51ko partaidetza du. Sozietate honek ez du jarduerarik, baina ezin kita daiteke harik eta kanpoan asoziatutako enpresaren kitapenari dagozkion auziak amaitu artean.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## PARTZUERGOAN BILDUTAKO UDALERRIEN ZERRENDA

Abadiño	Dima	Larrabetzu	Santurtzi
Abanto-Zierbena	Durango	Laukiz	Sestao
Alonsotegi	Elorrio	Leioa	Sondika
Amoroto	Erandio	Lekeitio	Sopelana
Arantzazu	Ereño	Lemoa	Ubide
Areatza	Etxebarri	Lemoiz	Ugao-Miraballes
Arrigorriaga	Etxebarria	Lezama	Urduliz
Artea	Fruiz	Loiu	Urduña/Orduña
Atxondo	Galdakao	Mañaria	V.Trapaga-Trapagaran
Aulesti	Gamiz-Fika	Markina-Xemein	Zaldibar
Bakio	Gatika	Maruri-Jatabe	Zalla
Balmaseda	Getxo	Mendexa	Zamudio
Barakaldo	Gizaburuaga	Morga	Zaratamo
Barrika	Gordexola	Mungia	Zeanuri
Basauri	Gorliz	Munitibar	Zeberio
Bedia	Güeñes	Muskiz	Zierbena
Berango	Igorre	Ondarroa	Ziortza-Bolibar
Berriatua	Iurreta	Ortuella	
Bilbao	Ispaster	Plentzia	
Derio	Izurtza	Portugalete	

## II. IRITZIA

### II.1 BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA

#### II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Ondasun erosketa eta zerbitzuak (ikus A.15.1 eranskina)

1. Nerbioi-Ollargan-Beteluri hoditeria berriaren proiektuko lanak 2010ean esleitu ziren 6,4 milioi euroren zenbatekoan eta bi aldaketa egin zaizkio, guztira 2,2 milioi euroan, kontratua % 33,9 igo dutenak. Aipatutako kontratuen exekuzioan halako aldaketa adierazgarriek administrazioko kontratazioaren araudian jasotako lehiaketa printzipioak urratzen dituzte, izan ere, igoeren zenbatekoak desitxuratu egiten du kontratuaren bolumen ekonomikoa.
2. Butroe ibaiaren, Fruiz eta Lotina kolektoreen saneamendu lanen espedientea 2011n esleitu zen 2,7 milioi euroren zenbatekoan; ordea, esleipendunaren proposamen ekonomikoa beharpen ekonomikoa egiten du segurtasun eta osasunari dagokion kapituluan eta hori eragotzi egiten du araudiak. Nahiz honek ez dakarren eskaintzari uko egitea, beharpen hori aintzat ez hartzeak eralda zezakeen esleipendunaren hautaketa.
3. BBUPren A eta B gunetako kontagailuen parkea hornitu eta zaintzeko kontratuaren 2011ko ekitaldiko esleipen ebazpenak ez du errespetatzen, 2. sortari dagokionez, kontratazio mahaiak proposatutako sailkapen hurrenkera eta bigarren sailkatutakoari esleitu dio 1,1 milioi euroren zenbatekoan kontratua; izan ere, txosten teknikoak iritzi dio espedienteko bi sorten prestazioa enpresa ezberdinen esku uzteak mesede egingo liokeela.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege araudia.

#### II.1.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen iritzira, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren 2012ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2012ko aurrekontu ekitaldiaren jardura ekonomikoa erakusten dute, 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena eta ekitaldi horretan bere eragiketen emaitzena.

Gure auditoriako iritzian eraginik ez badu ere, erakundearen oroitidazkian bere ibilgetua osatzen duten elementuen balio-bizitza urteak egokitzeari egiten zaion aipamena azpimarratu nahi dugu, 2012ko ekitaldian amortizazioak 5,7 milioi euro inguru igotzea eragin dutenak.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## **II.2 UDAL SAREAK, SA SOZIETATE PUBLIKOA**

### **II.2.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

#### **Ondasun erosketa eta zerbitzuak (ikus B.3 eranskina)**

1. A, B eta C guneetako udalerrien hornidurako bigarren mailako sareen matxurak ustiatu, mantendu eta kudeatzeko zerbitzuari dagozkion hiru espedienteetan, 2008an 2 urteko eperako lizitatuak eta beste bi urtetara luzagarrietan, ez zen DOUEn adierazi luzapenak egiteko aukera, ez eta balioetsitako balioa ere, 1,2, 1,7 eta 1 milioi euro egiten zituena. Gainera, eskaintzak aurkezteko epemuga aurretik, nabarmen aldatu ziren eskagarria zen sailkapena eta esleipen irizpideak, bai haztatzearen ehunekoetan, bai balioztatze alderdi teknikoen xehetasunetan ere; ordea, ez ziren aldaketa horiek zegozkion aldizkari ofizialetan argitara eman, 31/2007 Legearen 61. artikulua aurreikusitakoaren aurka, zeinak berariaz aipatzen dituen pleguan eta iragarkian ezar daitezkeen irizpide objektiboak. Hiru kontratu hauek 2012ko ekitaldian eragindako gastua, hurrenez hurren, 851.021, 926.403 eta 731.185 euroena da.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako ez-betetzeak alde batera, Udal Sareak, SA Sozietate Publikoak zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### **II.2.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Udal Sareak, SA foru sozietate publikoaren 2012ko ekitaldiaren Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren esparru-arautegiaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

## **II.3 BILBOKO URAK SOZIETATE PUBLIKOA, SA**

### **II.3.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen ustetan, Bilboko Urak, SA Sozietate Publikoak zuzentasunez bete du 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

### **II.3.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA**

Epaitegi honen iritzira, Bilboko Urak, SA foru sozietate publikoaren 2012ko ekitaldiaren Urteko Kontu laburtuek alderdi esanguratsu guztietan 2012ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren esparru-arautegiaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.

Gure auditoriako iritzian eraginik izan gabe, sozietatearen oroitidazkian jasotako informazioa ekarri nahi dugu hona, izan ere bertan esaten da 2006ko uztailean Buenos Airesko Probintziako Gobernadoreak 1666 Dekretua izenpetu zuela eta horren indarrez Aguas del Gran Buenos Aires, SArekin egindako emakida kontratua bertan behera uzteko agindu zela, zeinetan Bilboko Urak, SAk partaidetza kontuen bitartez parte hartzen duen. 2006ko irailean sortutako auziari buruzko arbitraje-prozedura abiarazteko eskatu zen, Inbertsioak Sustatu eta Elkarrekiko Babeserako Akordioaren 10.4 artikuluan ezarritako baldintzekin; Akordioa Espainiako Erreinuaren eta Argentinaren Errepublikaren artean izenpetu zen Estatuaren eta beste estatu batzuetako nazionalen arteko inbertsioei buruzko aldeak bideratzeko Hitzarmenari, 1965eko martxoaren 18koari meneratzeko. 2012 urte amaieran desjabetzearen ondorioz akziodunek jasandako egiazko kalteak neurtzea bideratuko zuen dokumentazioa aurkezteko prozesuan zegoen, behin abenduaren 19an CIADIK Argentinaren Errepublikak aurkeztutako salbuespenak ezetsi ondoren, non bere burua arbitrajeko laudoa jaulkitzeko eskumendun izendatzen zuen. Ahozko ikustaldia 2014ko azaroan egitea aurreikusi da.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

#### III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

##### Konpromiso kredituak

- Kontu Orokorrak konpromiso kredituen egoera barne hartzen du, 112,4 milioi euroren zenbatekoan. Kopuru honek 2012ko urtekoa barne hartzen du, 45,6 milioi euroren zenbatekoan; ordea, kopuru horiek ekitaldiko aurrekontu arruntean barne hartuak daude (gehienak, 39 milioi eurorenak, aitortutako obligazioen fasean). Honenbestez, etorkizuneko aurrekontuak eragiten dituzten konpromiso kredituei buruzko informazioa zuzentasunez emateko, gainerako urtekoak soilik barne hartu behar direla uste dugu, guztira 66,8 milioi euroren zenbatekoan. Bestetik, 2012ko ekitaldi itxieran kreditu horiek zein fasetan dauden ere jakinarazi beharko litzateke, 44,2 milioi euro konprometituak daude eta 22,6 milioi euro baimenduak daude.
- BBUPk konpromiso kredituen egoeran egiazko inbertsioen eragiketak soilik jasotzen ditu, geroko ekitaldietan eragina duten bolumen handieneko jarduerak direlarik. Nahiz kopuru aldetik ez diren esanguratsuak, komenigarria litzateke segidako traktukoak ez diren laguntza teknikoei buruzko jarduerak ez ezik, urteanitzeko iraupena duten toki erakundeei emandako kapital diru-laguntzak ere barne hartzea.

#### III.2 LANGILERIA GASTUAK

Kapitulu honetan ondotik adierazitako alderdiak azpimarratu ditugu:

- Idazkaritza, artekaritza eta diruzaintza egitekoak lan kontratupeko langileek betetzen dituzte, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren 7/2007 Legearen 1. atalaren Xedapen Gehigarri Bigarrenak erabakitakoa urratuz, funtzionarioentzat gordetzen baititu.
- Txosten hau idatzi dugun datan ez dira 2008an izenpetutako Hitzarmen Kolektiboaren aurreikuspenak bete, BBUPko langileen maila bere esparruko administrazio publikoetan indarrean dagoenarekin homologatzeari buruzkoa eta honenbestez, indarrean jarraitzen du ordainsariak finkatzeko sistemak, zeinak esan nahi duen, zerbitzuan hamar urte egin ostean ondo-ondoko goiko mailaren ordainsaria finkatzen dela, behin bakarrik eta betiere sustapenik gertatu ez bada (% 50 5 urtetara eta % 100, hamar urtetara).
- 2012an hiru zuzendariorde lanpostu deitu dira, plantillako langile finkoen artetik izendapen libre bidezko zuzkidura sistema baliatuta, Hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoari jarraiki. Lanpostu hauetarako eta Hitzarmenean aurreikusitako gainerakoetarako (Saileko buruak) aurreikusitako zuzkidura sistema justifikatuko duen aparteko erantzukizuna definitu beharko litzatekeela uste dugu.



- BBUPk ez ditu 2012an BAOn argitara eman lanpostuen zerrendan egindako aldaketak, Zuzendaritza Batzordeak onartutakoak, EFPLren 16. artikulua agintzen duen moduan.
- 2012ko abenduaren 21eko Zuzendaritza Batzordeak lan kontratupeko langileei, hitzarmenaz kanpo zeudenak barne, 288.743 euroren ordainketa egitea onartu zuen, izaera ez finkagarria, ez metagarria zuena; kopuru hori Hitzarmenean enplegatuei ordaintzeko funts ekonomiko modura aurreikusitako ordainsariari zegokion, kudeaketa helburuen betetze mailaren arabera zena. Ez daude jasoak aurreikusitako kudeaketa helburuak eta kobrantza eskubidea izateko bete direnik; honenbestez, ordainsari orokorra izango litzateke, justifika ezin daitekeena eta helburu banako edo kolektiboak betetzearekin pareka ezin daitekeena.

### III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

#### Kontratazio espedienteak eta luzapenak

BBUPk esleitutako hamazortzi kontratazio espediente berrikusi dira, guztira 123,1 milioi euroren zenbatekoan eta sei kontratu luzapen, 2012ko ekitaldian 6 milioi euroren gastua eragin dutenak; horiek guztiak aztertzetik (ikus A.15.1 eta A.15.2 Eranskinak) ondoko alderdi hauek azpimarratu nahi izan ditugu:

- BBUPk iragarkietan eta kontratugilearen profileen kontratuen balioetsitako balioa soilik jasotzen du luzapenak aurreikusi diren espedienteetan, lizitazio aurrekontua aurreikusitako urteko kopuruarekin biderkatua abiaburu hartuta; ordea, ez pleguek, ez espedienteak abiarazteko onespeneak ere ez dute balioetsitako balioa barne hartzen. Luzapenik gabeko espedienteetan ez zaio inongo erreferentziarik egiten balioetsitako balioari arestian aipatutako agiri edo publizitate medioetan, lizitazio aurrekontua soilik jasotzen dela. Balioetsitako kopurua islatu beharko litzatekeela uste dugu, baita hura lizitazio zenbatekoarekin bat baletor ere, araudiaren aurreikuspenekin betetzearren.
- Guztira 21,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako kontratazioko bost espedientetan, pleguek irizpide teknikoaren gainean zuzenketa faktore bat txertatzen dute, % 60 eta % 80 bitartekoa dena eta zailtasun txikiagoa duten espedienteetan aplikatzen dena, osagai ekonomikoa nagusitu dadin. Zuzenketa faktore hau iragarkian ere jaso behar litzatekeela uste dugu.
- Guztira 114 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako hamabost kontratazio espedienteren pleguek esleipen irizpidetzat "proposatutako hobekuntza objektiboak" jasotzen dituzte, zein elementuren gainean eta zein baldintzetan balioztatuko diren hobekuntza horiek zehaztu gabe.
- Prozedura irekia baliatuta izapidetutako espediente guztietan, hamabost, guztira 114 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, balio judizio baten arabera haztagarriak diren esleipen irizpideei dagokien dokumentazioaren irekiera ez da ekintza publiko bidez gauzatzen. Kontratazio mahaiak dokumentazio irekiera gauzatu eta proposamenak zerbitzu teknikoei balorazioa eta txostena egiteko igorri izanaren ebidentzia utzi du akta batean.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Guztira 39,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutako hamahiru kontratazio espedienteren esleipen erabakiak, esleipena eta esleipen zenbatekoa zehaztera mugatzen dira, hautatutako eskaintzaren ezaugarri eta abantailak zehaztu gabe eta esleipen hartzailearen hautaketa euskarritzen duen txosten teknikoari inongo erreferentziarik egin gabe.
- Publikotasunik gabeko prozedura negoziatu bidez esleitutako hiru espedienteetan, guztira 404.930 euroren zenbatekoan, ez dira pleguetako aurreikuspenak ezartzen, kontratazio atalak alderdi tekniko eta ekonomikoak negoziatzeari buruzkoak, eta eskaintza merkeena aurkeztu duen lizitatzailaren alde egin da esleipena. Bestetik, pleguetan negoziagarri diren atalak orokorrak direla uste dugu eta honenbestez, garatu egin beharko lirateke.
- Ollargan-Montefuerte aisialdiko guneko lanak 2012ko abuztuaren 16an esleitu ziren, publikotasunik gabeko prozedura negoziatua baliatuta, 166.801 euroren zenbatekoan. Kontratua irailaren 25ean izenpetu zen eta zuinketa egiaztatzeko akta irailaren 26an egin zen; lanak irailaren 28an jaso ziren. Jarduera horien segida kronologikoak zalantza eragiten digu lanen hasiera datari dagokionez.

### **Administrazio kontrataziorik gabeko gastua**

2013ko martxoaren 8an Ekonomia Zerbitzuetarako Zuzendaritzak BBUPren Zuzendaritza Batzordeari 2012ko ekitaldiko hainbat gasturen berri eman zion; ordea, akatsak ikusi dira kontratazioan, Zuzendaritza Batzordeak onartu dituenak.

Administrazioko kontratazio espedienterik gabeko gastuak aztertu dira eta ikusi da hainbat gastu zazpi hornidura eta bi zerbitzuri dagozkiola, hurrenez hurren 316.817 eta 92.641 euroren zenbatekoan; horiek ekitaldian zehar bakoitzari egindako hainbat eskari jasotzen dituzte; komeni da neurtzea eskaintzen eskaera edo lehiaketa egitea. Gastu hauek guztiak, 50.620 euroren bat salbuetsita, Zerbitzu Ekonomikoen Zuzendaritzak atzeman dituen gastu zerrendan barne hartuak daude, Zuzendaritza Batzordeak onartutakoak; horregatik, positiboa irizten diogu kontratazio espedienterik gabeko gastua kontrolatzeko egindako lanari.





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### III.4 UDAL SAREAK, SA

#### Ondasun erosketak eta zerbitzuak

Atal honetan ondotik adierazitakoak azpimarratu nahi ditugu:

- A, B eta C gunetako udalerrien bigarren mailako sareak urez hornitzeko ustiaketa zerbitzu, mantentze lan eta aberien kudeaketarako 2012ko espedienteen luzapenetan, gorantz aldatu dira aurreikusitako kopuruak, hurrenez hurren, 208.993, 170.771 eta 212.838 euroan; aldaketa horiek egiteko baliatu diren balioespenak ez dira txertatutako udalerrietan egin beharreko lan eta zerbitzuekin justifikatzen, baizik eta antzeko ezaugarriak dituzten udalerrietan emandako zerbitzuen datuetan. Gomendagarria litzateke txertatutako udalerrietan aurre egin beharreko beharriaz buruzko azterketa egitea.
- Kontratazio izapideei dagokienez, hona hemen azpimarratu ditugun alderdiak:
  - Web orrian argitara emandako Kontratazioko eskuliburuan aurreikusi da Batzorde Teknikoak hainbat baldintza proposatu ahal izango dituela, arrazoituaz, obraren edo zerbitzu ematearen hornidura zuzen egingo dela bermatze aldera, baldintza horiek onartu ezean esleipenak indarriz izango ez lukeelarik. Gure iritzira, aurreikuspen hori ez dagokio batzorde horren asistentzia egitekoen barruan.
  - Erregulazio harmonizatuko kontratuei buruzko edukari dagokionez, komenigarria litzateke ondoko alderdi hauek aintzat hartzea:
    - 18.000 euroz azpitiko zerbitzuen erosketak eta/edo kontratazioetarako, 50.000 euroz azpitikoa obretan, esleipen zuzena ezartzen da, erreferentzia eginez aurrekontuak eskatzeari, egoki bada, eta esleipenaren txosten justifikatzaileari kasu honetan. Gomendagarria litzateke lehia printzipioa betearazteko aurrekontuak eskatzeko obligazioa ezartzea.
    - Gainera, zuzendari kudeatzaileak enpresarentzat intereseko diren arrazoiak tarte, beste prozeduraren bat proposa dezake. Aukerako ahalmen hau zehaztu egin behar litzateke.

#### Langileria-gastuak

Kapitulu honetan ondotik adierazitako alderdiak azpimarratu ditugu:

- 2012an gehienez bi urteko aldirako egindako praktiketako aldi baterako kontratuen baliatutako hautaketa prozedurak, hau da, unibertsitate bati izangaia eskatzekoak, ez du bermatzen publikotasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak beteko direnik, nahiz unibertsitate horren hautaketa prozesu batean justifikatu.
- 2012ko ekitaldian langileei guztira 12.359 euroren zenbatekoa ordaindu zaie 2011ko ekitaldiko helburuak betetzeagatik ordainsari kontzeptuarekin, bertako Hitzarmeneko bigarren xedapen gehigarria ezarrita; horren indarrez, BBUPk onartutako zeinahi aldaketa bere egiteko konpromisoa hartzen du; ez da, baina, inguruabar hori gertatu eta honenbestez, ez dagokio ordainketa egitea.



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

- Sozietateko langileek 2012an taldean eta banaka (hauek helburu guztien gainean gutxienez % 40) enpresa helburuak betetzeagatik guztira 50.065 euro jaso dituzte ordainsari aldakor kontzeptupean; helburuak aldeztatik Administrazio Kontseiluak finkatu eta onartu zituen eta Hitzarmenean aurreikusiak zeuden.

Helburu horiek aztertzeetik ikusi da 2012ko martxoaren 27ko Administrazio Kontseiluak onartutakoak enpresaren helburu orokorrak direla, baina ez banakakoak. Gainera, hainbat helburu orokor ez daude kuantifikatuak Sozietatearen ohiko jarduera ez den beste jarduera osagarri batekiko.

- Antzinatearen kontzeptua urtarilaren lehen aurrerako ondorioekin ordaintzen da, hirurtekoa noiz bete den aintzat hartu gabe, 2010az geroztik indarrean dagoen Hitzarmenaren 8. artikuluari jarraiki. Irizpide hau ez dator bat BBUPren Hitzarmenean onartutakoarekin, sortzapena hilerokoa izango dela esaten duena; Hitzarmen hori da erreferentzia eta ordezkotasun izaera du Bigarren xedapen gehigarriaren ondorioz; gainera, ez da sektore publikoan orokorrean baliatutako irizpidea.

### Kudeaketa mandatuenak

- 2/2005 mandatuak ez da berariaz luzatu, baizik eta 2012rako onartutako aurreikuspeneko aurrekontuaren atal modura, zeinaren helburua bigarren mailako udal hornidura sarea kudeatu, zaindu, ustiatu eta birjartzea dena. Gainera ez da agiri bidez justifikatzen 2011n egindako gastuarekiko aurrekontu egindako zenbatekoaren igoera, mandatuaren 3. atalak agintzen duen moduan.
- Putzu septikoak baliogabetzeko lanei dagokienez, 2012an 150.590 euroren gastua izan dutenak, ez da dagokion kudeaketa mandatuaren izenpetu.

#### IV. FINANTZA ANALISIA

Hona hemen BBUPren Aurrekontu Kontuetatik eratorri diren finantza magnitude nagusiak:

#### AURREKONTUAREN EMAITZA

	Euroak milakotan			
	(*)2009	(*)2010	(*)2011	2012
Tasak eta bestelako sarrerak.....	84.389	88.049	85.719	91.044
Transferentzia arruntak .....	23	80	117	-
Ondare sarrerak .....	1.362	830	1.222	1.405
Langileria-gastuak .....	(23.404)	(24.086)	(23.524)	(22.422)
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak .....	(49.740)	(50.313)	(50.053)	(51.269)
Transferentzia arruntak .....	(917)	(492)	(27)	(19)
<b>ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA</b>	<b>11.713</b>	<b>14.068</b>	<b>13.454</b>	<b>18.739</b>
Egiazko inbertsioen besterentzea .....	102	76	5	8
Kapitalezko transferentziek eragindako sarrerak.....	29.732	37.785	38.293	49.651
Inbertsio errealak .....	(35.264)	(40.632)	(44.153)	(57.118)
Kapital transferentziek eragindako gastuak .....	(3.736)	(2.093)	(996)	(1.169)
<b>KAPITAL ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>(9.166)</b>	<b>(4.864)</b>	<b>(6.851)</b>	<b>(8.628)</b>
Finantza aktiboen bariazioagatik sarrerak, gastuak kenduta .....	54	9	294	(85)
<b>FINANTZA ERAGIKETEN EMAITZA</b>	<b>54</b>	<b>9</b>	<b>294</b>	<b>(85)</b>
<b>AURREKONTU ARRUNTAREN EMAITZA</b>	<b>2.601</b>	<b>9.213</b>	<b>6.897</b>	<b>10.026</b>
<b>EKITALDI ITXIEN EMAITZA</b>	<b>(363)</b>	<b>(1.576)</b>	<b>(642)</b>	<b>(476)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>2.238</b>	<b>7.637</b>	<b>6.255</b>	<b>9.550</b>
<b>EMAITZARI DOIKETAK</b>				
Finantzaketa desbideratzeak .....	(420)	-	(582)	45
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioak .....	28.996	15.599	16.086	10.026
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>	<b>30.814</b>	<b>23.236</b>	<b>21.759</b>	<b>19.621</b>

(\*): HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Aurrekontuaren emaitza aztertzetik honako ondorio hauek eskuratu ditugu:

- BBUPk eragiketa arruntan kontzeptuan emaitza positiboa eskuratu du, 2012ko ekitaldian "Tasak eta bestelako sarrerak" diru-sarreraren % 20,6 egiten duena. Ehuneko hau igo egin da aurreko ekitaldietakoaren aldean (% 13,9, 2009an; % 16, 2010ean; eta % 15,7, 2011n); arrazoi nagusienak 2012ko ekitaldian tasa eta bestelako sarreraren kontzeptuko sarrerak gora egin izana eta langile gastuak behera egin izana dira.
- Ekitaldian egikaritutako inbertsioak nagusiki BFAtik jasotako diru-laguntza bidez finantzatzen dira. Kanpoko finantzaketak 2012ko ekitaldian ekitaldiko inbertsioen egikaritzea kontzeptuan % 85,2 egin du.

2013ko apirilaren 17ko Batzar Nagusian, 2012ko ekitaldiko BBUPren Kontu Orokorra onartzen duena, 2013-2016 aldirako inbertsio programa aurkeztu zen, 263,5 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.5 eranskina). Inbertsio hauek gehien bat BFArekin izenpetutako Hitzarmenaren bitartez finantzatzen dira. Zehatzago esanda, 2013-2016 Inbertsio Planak BFAREN 150 milioi euroren finantzaketa jasotzen du; Eusko Jaurlaritzarena, Uraren Euskal



Agentziaren bitartez, Erdi Butroeko saneamendu lanetarako, 9 milioi eurorena; honenbestez, besteren finantzaketak aurreikusitako inbertsioen % 60 egingo luke.

2012ko ekitaldiaren Emaiza Arrunta 18,7 milioi eurorena da, aurreko ekitaldiekiko igoera nabarmena izan duela, tasak igo izanaren ondorioz; aurreikustekoa da ildo berari eutsiko diola 2013 eta 2014an, uraren prezioetan kostuak bere onera etorri izanaren ondorioz (ikus III.4 atala). Honek BBUPk 2012ko ekitaldi itxieran zuen Diruzaintza Geldikin handiarekin batera, 88,9 milioi euro egiten dituen, bide ematen du 2013-2016 aldirako Batzar Nagusiak onartutako Inbertsio Planari aurre egiteko.

- Ekitaldi guztietan dago aurreko ekitaldiko Diruzaintza Geldikin bitartez finantzatzen diren inbertsio kopuru esanguratsua, egikaritze berandutu izanaren ondorioz; hori dela eta, doitutako aurrekontu emaitza kopuru horietan gehitzen da.

## DIRUZAINZA GELDIKINA

BBUPren Diruzaintza Geldikinaren bilakaera honakoa izan da:

	Euroak milakotan			
	2009	2010	2011	2012
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA</b>	<b>75.437</b>	<b>83.073</b>	<b>89.329</b>	<b>98.873</b>
- Finantzaketa atxikia duten gastuetarako geldikina .....	-	-	(582)	(537)
- Zalantzako kobragarritasuneko saldoak .....	(9.155)	(8.531)	(8.873)	(9.411)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GELDIKINA</b>	<b>66.282</b>	<b>74.542</b>	<b>79.874</b>	<b>88.925</b>

## AURREKONTUAREN EGONKORTASUNA

BBUPren Kontu Orokorrak aurrekontuaren egonkortasuna balio-neurtzen duen txostena barne hartzen du, Aurrekontuaren Egonkortasun eta Finantzaren Iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege organikoa betez, apirilaren 27an onartu zena.

2011ko urriaren 1az geroztik, Estatuko Administrazioaren Artekaitza Nagusiak (IGAE) BBUP Sozietate ez Finantzario modura du sailkatua, merkatura zuzendua Kontuen Europako Sistemak (SEC) ezarritako irizpideei jarraiki, nahiz hori osatzen duten toki erakundeetako bati atxiki zain dagoen.

Kontu Orokorra kitatzeko espedientea finantza orekarekin aurkeztu da, aurrekontuaren egonkortasun irizpideei jarraiki.



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V. URTEKO KONTUAK

### V.1 BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN URTEKO KONTUAK

#### V.1.1 AURREKONTU KONTUAK

##### A. 2012-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA Euroak milakotan

SARRERAK	Eranskina	Aurrekontua			Kitatutako eskubideak	Kobratu	
		Hasierakoa	Aldak.	B.-Betikoa		Kobran.	gabea
3.-Tasak eta bestelako sarrerak .....	A8	97.226	124	97.350	91.044	65.714	25.330
5.- Ondare sarrerak.....	A13	1.000	-	1.000	1.405	1.389	16
6.- Inbertsio errealak besterentzea ....		-	-	-	8	8	-
7.- Kapital transferentziak.....	A9	51.000	260	51.260	49.651	27.261	22.390
8.-Finantza aktiboen bariazioa .....	A7	117	26.675	26.792	103	103	-
<b>SARRERAK GUZTIRA</b>		<b>149.343</b>	<b>27.059</b>	<b>176.402</b>	<b>142.211</b>	<b>94.475</b>	<b>47.736</b>

A10

GASTUAK	Eranskina	Aurrekontua			Aitortutako obligazioak	Ordaindu	
		Hasierakoa	Aldak.	B.-Betikoa		Ordaink.	gabea
1.-Langileria-gastuak.....	A3	23.776	681	24.457	22.422	21.979	443
2.-Ondasun arruntan erosk. eta zerb.	A4	61.653	6.080	67.733	51.269	44.743	6.526
3.-Finantza gastuak.....		30	-	30	-	-	-
4.- Transferentzia arruntak.....	A6	61	-	61	19	19	-
6.- Inbertsio errealak .....	A5	62.817	17.834	80.651	57.118	40.016	17.102
7.- Kapital transferentziak.....	A6	889	2.377	3.266	1.169	840	329
8.-Finantza aktiboen bariazioa .....	A7	117	87	204	188	188	-
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>		<b>149.343</b>	<b>27.059</b>	<b>176.402</b>	<b>132.185</b>	<b>107.785</b>	<b>24.400</b>

A2

##### B. EKITALDI ITXIEN HONDAKINEN LIKIDAZIOA, 2012 Euroak milakotan

		Hasierako		Kobr./ ordaink.	Azken zorra
		zorra	Baliogab.		
Zordunak .....	A10	46.615	(476)	(38.042)	8.097
Hartzekodunak .....		20.406	-	(19.859)	547



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

C. AURREKONTUAREN EMAITZA 2012		Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....		142.211
Aitortutako obligazioak.....		(132.185)
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>10.026</b>
Ordaintzeke dauden obligazioen bajak.....		-
Kobratzeko dauden eskubideen bajak.....		(476)
<b>AURREKONTU ITXIEN ERAGIKETAK</b>		<b>(476)</b>
<b>AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>9.550</b>
AURREKONTU EMAITZARI DOIKETAK		
Atxikitako sarrerak dituzten gastuetan finantzaketa desbideratzeengatik.....		45
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako obligazioengatik.....		10.026
<b>DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA</b>		<b>19.621</b>

D. DIRUZAINZA GELDIKINA 2012.12.31N		Euroak milakotan	
Aurrekontuko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak .....	A10		55.833
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik kobratzeko dauden eskubideak .....	A12		14.787
Aplikatzeko dauden sarrerak .....	A12		(35.123)
Aurrekontuko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak .....	A10		(24.947)
Aurrekontuz kanpoko eragiketetatik ordaintzeko dauden obligazioak .....	A12		(7.951)
Diruzaintzako funts likidoak .....	A13		96.274
<b>DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2012/12/31-N</b>			<b>98.873</b>
Finantzaketa atxikia duten gastuei lotutako Diruzaintza Geldikina .....			(537)
Zalantzako kobragarritasuneko saldoak.....	A10		(9.411)
<b>GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA 2012/12/31-N</b>			<b>88.925</b>

E. KONPROMISO KREDITUAK		Euroak milakotan					
		2012	2013	2014	2015	2016	GUZTIRA
Inbertsio errealak .....	A5	45.594	41.106	14.252	11.322	79	112.353
<b>GUZTIRA</b>		<b>45.594</b>	<b>41.106</b>	<b>14.252</b>	<b>11.322</b>	<b>79</b>	<b>112.353</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.1.2 ONDARE KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 eta 2011ko abenduaren 31n Euroak milakotan

AKTIBOA	Eransk.	2012	2011	PASIBOA	Eransk.	2012	2011
<b>IBILGETUA</b>		<b>602.794</b>	<b>576.346</b>	<b>FUNTS PROPIOAK</b>		<b>336.413</b>	<b>339.858</b>
Ezmateriala .....	A5	5.915	5.703	Ondarea .....	A11	145.557	145.557
Materiala .....	A5	510.196	512.076	Lagapenean jasotako ondarea.....	A11	47.370	47.370
Abian dagoen materiala.....	A5	84.236	56.213	Ekitaldi itx. emaitza negat. ....	A11	(9.813)	(7.427)
Finantzarioa .....	A7	2.447	2.354	Ekitaldi itxien emaitza positiboak....	A11	156.744	156.744
				Ekitaldiaren emaitza.....	A11	(3.445)	(2.386)
<b>IZAKINAK</b>		<b>363</b>	<b>359</b>	<b>HAINBAT EKIT. BANATZEKO SARR.</b>		<b>365.484</b>	<b>326.619</b>
				Kapital diru-laguntzak.....	A9	360.984	322.036
				Lagapenean jasotako ondasunak ...	A9	4.500	4.583
<b>ZORDUNAK</b>		<b>72.062</b>	<b>59.150</b>	<b>HARTZEKODUNAK EPE LUZERA</b>		<b>1.539</b>	<b>1.545</b>
Ekital. aurrek. zordunak .....	A10	47.736	39.026	Bestelako hartzekod. epe luzera.....	A12	1.539	1.545
Ekit. itx. aurrek. zordunak ....	A10	8.097	7.589	<b>HARTZEKODUNAK EPE LABURRERA</b>		<b>68.060</b>	<b>58.855</b>
Askotariko zordunak.....	A12	13.831	12.267	Ekit. aurrek. hartzekodunak .....		24.400	18.624
Entitate publiko zordunak ....	A12	11.809	9.140	Ekit. itx. aurrek. hartzekodunak.....		547	1.782
Zuzkidurak.....	A10	(9.411)	(8.872)	BEZarengatiko hartzekodunak.....	A12	4.924	3.306
<b>FINANTZA-KONTUAK</b>		<b>96.277</b>	<b>91.022</b>	Ordaindu gabeko ordainag. hartzekod. A12		1.178	-
Aldi bateko finan. inberts.....	A13	3	39.112	Erakunde Publiko hartzekodunak ...	A12	372	593
Diruzaintza .....	A13	96.274	51.910	Beste zor batzuk .....	A12	1.516	1.874
				Aplikatzeko dauden sarrerak.....	A12	35.123	32.676
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>		<b>771.496</b>	<b>726.877</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>		<b>771.496</b>	<b>726.877</b>

B. 2012 eta 2011ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK Euroak milakotan

GASTUAK	2012	2011	SARRERAK	2012	2011
Hornidurak .....	4.027	4.134	Negozio zifraren zenbateko garbia.....	84.956	78.122
Langileria-gastuak .....	22.454	23.586	Transferentzia eta diru-lag. arrunt.....	-	117
Ibilgetua amortiz. zuzkidura .....	30.734	22.788	Kudeaketa arrunteko bestel. sarr. ....	7.092	6.800
Trafiko horniduragatiko aldak. ....	539	341			
Kanpoko zerbitzuak .....	48.110	45.583			
Zergak eta kudeak. bst. gast. ....	1.462	1.443			
			<b>Ustiaketa galerak</b>	<b>15.278</b>	<b>12.836</b>
Finan. inb. zuzk. bariazioa.....	17	(149)	Interesengatiko sarrerak.....	1.405	1.222
<b>Finantza emaitza positiboa</b>	<b>1.388</b>	<b>1.371</b>			
			Ekit. emaitzara aldat. kap. dirulag.....	10.786	9.524
			<b>JARDUERA ARRUNT. GALERAK</b>	<b>3.104</b>	<b>1.941</b>
Aurreko ekitald. gastu-galerak .....	476	655	Aurreko ekitald. sarr. eta mozk.....	-	13
			<b>Aurreko ekitald. galerak</b>	<b>476</b>	<b>642</b>
Ibilgetutik eratorritako galerak .....	-	3	Ibilgetutik eratorritako mozkinak .....	4	-
Aparteko galerak .....	-	-	Aparteko irabaziak.....	131	200
<b>Aparteko emaitza positiboak</b>	<b>135</b>	<b>197</b>			
			<b>EKITALDIAREN GALERA</b>	<b>3.445</b>	<b>2.386</b>



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

## V.2 UDAL SAREAK, SA-REN URTEKO KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 eta 2011ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2012	2011	PASIBOA	2012	2011
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>162</b>	<b>261</b>	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>618</b>	<b>659</b>
lbilgetu ukiezina.....	69	61	Eskrituran jasotako kapitala.....	601	601
lbilgetu materiala.....	93	200	Jasot. diru-lag., dohaintza eta legatuak.....	17	58
			<b>PASIBO EZ ARRUNTA</b>	<b>7</b>	<b>22</b>
			Geroratutako zerga kontzeptuko pasiboak	7	22
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>24.997</b>	<b>27.714</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>24.534</b>	<b>27.294</b>
Merkat. zordunak eta bestel. knt.....	24.606	27.094	Epe laburreko zorrak.....	3	3
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	3	3	Hartzekod. eta ordaintz. bst. kontu batzuk	24.531	27.291
Diruzaintza.....	388	617			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>25.159</b>	<b>27.975</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>25.159</b>	<b>27.975</b>

B. 2012 eta 2010ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK		Euroak milakotan	
	2012	2011	
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	4.446	4.272	
Hornidurak.....	(3.281)	(2.984)	
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	73.869	69.054	
Langileria-gastuak.....	(792)	(914)	
Bestelako ustiaketa gastuak.....	(74.159)	(69.343)	
lbilgetuaren amortizazioa.....	(142)	(167)	
lbilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea.....	56	75	
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>	<b>(3)</b>	<b>(7)</b>	
Sarrera finantzarioak.....	3	7	
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>	<b>3</b>	<b>7</b>	
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>-</b>	<b>-</b>	





Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

### V.3 BILBOKO URAK, SA-REN URTEKO KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 eta 2011ko abenduaren 31n				Euroak milakotan	
AKTIBOA	2012	2011	PASIBOA	2012	2011
<b>AKTIBO EZ ARRUNTA</b>	-	-	<b>ONDARE GARBIA</b>	<b>2.259</b>	<b>2.354</b>
			Eskrituran jasotako kapitala.....	2.293	2.293
			Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	61	2
			Ekitaldiaren emaitza.....	(95)	59
<b>AKTIBO ARRUNTA</b>	<b>2.262</b>	<b>2.356</b>	<b>PASIBO ARRUNTA</b>	<b>3</b>	<b>2</b>
Merkat zordunak eta bestel. knt .....	3	179	Epe laburreko bestel. zorrak.....	3	2
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	14	14			
Diruzaintza .....	2.245	2.163			
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>2.262</b>	<b>2.356</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>2.262</b>	<b>2.356</b>

B. 2012 eta 2010ko ekitaldietako GALERA-IRABAZIEN KONTUAK		Euroak milakotan	
		2012	2011
Bestelako ustiaketa gastuak.....		(105)	(142)
<b>USTIAKETAREN EMAITZA</b>		<b>(105)</b>	<b>(142)</b>
Sarrera finantzarioak .....		12	26
Trukaneurri aldeak .....		(2)	175
<b>EMAITZA FINANTZARIOA</b>		<b>10</b>	<b>201</b>
<b>EMAITZA ZERGA AURRETIK</b>		<b>(95)</b>	<b>59</b>
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>		<b>(95)</b>	<b>59</b>



## **ALEGAZIOAK BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN 2012KO FISKALIZAZIOAREN (HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINDAKOA) EMAITZEI**

### **A) TXOSTENAREN ONDORIOEI ALEGAZIOAK**

#### **1. ALEGAZIOA:**

#### **II. IRITZIA**

#### **II.1 BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA**

#### **II.1.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA**

*2.- 2011n 2,7 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako Butroe ibaiaren saneamendurako Fruiz eta Lotinako kolektoreen lan espedientean, esleipendunaren proposamen ekonomikoak legeak onartzen ez duen baja ekonomiko bat du segurtasunaren eta osasunaren atalari dagokionez. Horrek ez badu ere eskaintzaren gaitzespena eragiten, baja hori kontuan ez hartu izanak esleipendunaren ebazpena aldatzea eragin zezakeen.*

Gai horri buruzko eztabaida oso zabala da, nahiz eta egia den ez dela oso gai baketsua, aipatzekoa da Kontratazio Administratiboaren Aholku Batzordearen 18/98 Txostena, Segurtasunaren eta Osasunaren alorreko aurrekontua behetik lizitatzeko aukerari buruzkoa, zeinetan adierazten den “*segurtasun eta osasun alorreko neurriak ez gutxitzeak ez du indargabetu behar txosten honetan oinarri den tesia, hain zuzen ere, adierazten duena lizitatzailerek, administrazio publikoen kontratuei buruzko legediaren ondoriozko ahalmenen babesean, lizitazioaren aurrekontua baino prezio merkeagoengatik egin ahal izango dituztela eskaintza eta dagozkion lanak, kontratazio administratiboaren funtsezko printzipio bat delako*”.

Laburbilduz, txosten honetan adierazten da ezin direla aldatu ez lanak ez horien kalitatea (Partzuergoak bat egiten duelarik tesi horrekin), baina bai, aitzitik, horien prezioa, zenbateko estimatua baita –lizitazio kontratuan bezala–, merkatuaren preziora egokitu bailiteke.

Araudiak ez du zehazten, beraz, hori ezinezkoa denik, eta, zenbaitetan, kontratazio organoen esku gelditzen da ezintasun hori zeinek bere baldintzetan zehazteko aukera.

Lizitazio honetan oinarri izan ziren Baldintzetan ez zen ezintasun hori azaltzen, eta gure Baldintzetan ere ez da halakorik agertzen, ezta hurbileko Administrazioenetan ere; beraz, nekez ezagutu zezakeen kontratistak berak ezintasun hori, ez baita Kontratazio Publikoaren eremuan aplikatu daitezkeen legedian jasotzen.

Bestalde, guri dagokigun kasu zehatzean, esleipendunak partida horretan (20.000 euro) egindako bajak lizitazioaren zenbatekoari dagokionez (mota: 4.579.615,97 euro, % 0,4), ez



Herri -Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

zuen esleipendunaren erabakia aldatuko, izan ere, lehenengo gelditu zen eskaintza bera ere hurrengoa baino merkeagoa zen baita kopuru hori erantsita ere<sup>1</sup>.

## 2. ALEGAZIOA:

### II.2 UDAL SAREAK S.A. SOZIJATE PUBLIKOA

#### II.2.1 LEGEA BETEATZEARI BURUZKO IRITZIA

##### *Ondasunen eta zerbitzuen kontratazioa (ikus B.3 Eranskina)*

1. *A, B eta C eremuen baitako udalerrien hornikuntzarako bigarren mailako sareak ustiatzeko, mantentze lanak egiteko eta matxurak kudeatzeko zerbitzuei dagozkien hiru espedienteetan (2008an 2 urteko eperako lizitatuak, eta beste 2 urtez edo gehiagoz luzatzeko aukerarekin) ez zen DOUEn luzapenen aukera adierazi, ezta balio zenbatetsia ere (1,2, 1,7 eta 1 milioi eurora iristen zen, hurrenez hurren).*

*Gainera, eskaintzak aurkezteko gehieneko epemugaren aurretik, nabarmen aldatu ziren sailkapen galdagarria eta esleipen irizpideak, bai haztapen ehunekoei dagokienez bai baloratu beharreko alderdi teknikoaren xehetasunari dagokionez; eta aldaketa horiek ez ziren zegozkien buletinetan argitaratu, 31/2007 Legearen 61. artikuluan aurreikusitakoaren kontra, zeina berariaz dagokien baldintzetan eta iragarkian ezartzen diren helburu irizpideei. Hiru kontratu horien bitartez egindako gastua, 2012. ekitaldian, 851.021, 926.403 eta 731.185 eurokoa izan da, hurrenez hurren.*

Etorkizunari begira, hala behar den lizitazioetan, Epaimahaiaren iritziarekin bat eginez, DOUEn jakinaraziko da badagoen luzapenatarako aukera eta balio zenbatetsia.

Hiru kontratuetan sailkapenaren eta esleipen irizpideen aldaketari dagokionez, adierazi beharra dago Udal Sareak S.A.ren kontratazio prozedura batean interesa duen enpresa orok izena eman behar duela informazioa deskargatu aurretik; beraz, badugu enpresa horien erregistro bat. 2008/11/27an Kontratistaren Ataritik Baldintza Agiriak deskargatu zituzten

<sup>1</sup> Eraikuntza lanetan gutxieneko segurtasun eta osasun neurriak ezartzen dituen 1627/1997 Errege Dekretuaren 5.4 artikulua aurreikusten du "Segurtasun eta osasun azterketaren aurrekontuan jasotako neurketa, kalitate eta balorazioak aldatu edo ordezkatu egin daitezkeela kontratugileak segurtasun eta osasun planean proposatutako aukeren bidez, 7. artikulua aipagai duena; horretarako, aurrez behar bezala arrazoituriko justifikazio teknikoak aurkeztu behar dira, betiere horrek ez guztizko kopurua, ezta azterlanean jasotako babes-neurriak ere murrizten ez baditu."

Bestetik, 58.531,68 euroren aurrekontuarekiko segurtasun eta osasun kapituluko eskaintza 23.908,35 euroan murrizteak eragina izan dezake esleipenduna bereizterakoan. Nahiz eskaintza ekonomiko onena izaten jarraitu, kapitulu horretan aurrekontuaren zenbatekora arteko igoerak eragin du 2.ari egotzitako puntuen diferentziala 49,156 izatetik 49,672 izatera aldatzea eragin du eta 1.ak aldagabe jarraitzen duenez gero eskaintzarik merkeena izaten jarraitzen duelako (50 puntu lehen eta gero), azken puntuazioa 90,672 puntukoa izango litzateke 2.arentzat eta 90,50 puntukoa, berriz, esleipendunarentzat.



enpresa guztiei adjudikazio aldaketei eta irizpideei buruzko oharrak igorri zitzaizkien. Era berean, gure webguneko Kontratataren Profila atarian ere jarri zen ohar hori bera.

Hori guztia kontuan hartuta, adieraz dezakegu uneoro eman zela jendaurrean aldaketa horien berri, eta kontratazio prozeduretan interesa duen pertsona edo enpresa orok izan duela horien berri.

### **3. ALEGAZIOA:**

#### **III BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK**

##### **III.1 AURREKONTUA ETA KONTULARITZA.**

- *“Kontu Orokorreran konpromiso maileguen egoera sartu da, 112,4 milioi eurokoa, hain zuzen ere. Zenbateko horren barruan sartu da 2012ko 45,6 milioi euroko urte saria, zenbateko horiek ekitaldiaren ohiko aurrekontuan sartuta daudenean (zatirik handiena, 39 milioi eurokoa, aitortutako betebeharren fasean dago). Beraz, uste osoa dugu, etorkizuneko aurrekontuei eragiten dieten konpromiso maileguei buruzko informazioa behar bezala emateko, gainerako urte sariak baino ez direla sartu behar, 66,8 milioi euroko guztizkoarekin. Bestalde, uste dugu 2012ko ekitaldiaren amaieran mailegu horiek zer fasetan dauden ere jakinarazi beharko litzatekeela: 44,2 milioi euro hitzartuta daude eta 22,6 milioi euro baimenduta.”*

